

ALZHEIMERRA DAUKATENENTZAT ZENTROA



Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako, hain zuzen ere, alzheimerra pairatzen duten gaixoei zuzendutako zentro bat irekitzea izango da gure proiektuaren helburua.

Zentroa gaixotasun horretan oinarrituko da, eta, beste zentroetan ez bezala, arreta berezia jasoko dute bertan daudenek. Arreta berezi horren barruan: mediku, ekintza, bizimodu eta laguntza espezializatua bermatuko zaie.

Hau guztia gutxi balitz, gaixotasunaren garapena hasi aurretik edo azaleratu aurretik, diagnostikatu izan den unetik gure zentrorra etortzeko aukera eskainiko zaie. Horrela, gaixotasuna motelago zabaltzeko eta gure ikerketan datu esanguratsuagoak lortzeko. Kasu hauetan, ez du zertan pazienteak ingresatua egon; jarraipen bat eta zenbait ekintza egitearekin nahiko izango da hasiera batean.

Helburu nagusi honetaz gain, beste azpi helburu bat lortu nahi du zentro honek: gaixotasun honen inguruko ikerketa sakona aurrera eramatea, bertako pazienteen bizimodua, jarrera eta prozesua aztertuz. Honekin, epe luzera Alzheimerra pairatuko duten pertsona horientzat bizi hobeago bat lortzeko modu lortu nahi dugu, gero eta gehiago direlako gaitz hau jasan behar izaten dutenak.